

# Agiñaga baillaria



San Ildefonso

# Agiñaga baillaria

**U**rkoko sortaldeko magalian, Agiñaga auzua dago. Biharbada Eibarko bost auzuetatik ezkutuen gelditzen dana, baiña ez horregaittik garrantzi gitxiagokua. Ixuatik, errepedez igo ezker, Zumaran eta Mendibil basarrixak dittugu lehelenak (baita Altzerreka eta Zumaran-Barri etxe egiñ-barririk be). Azkenak barriz, Arando basarrixak dira, Agiñaga auzua pasatu eta bizpahiru kilometrora gelditzen diranak. Mutur batetik bestera hogeit hamar inguru, hainbat txabola, etxe, errota eta basarrixen aztarnak eta ermittak be ikusi leikez Agiñagan.

Agiñaga Balliak Bizkaiakin egitten dau muga eta bertako basarri batzuk be metro gitxigaittik dira Eibar. Itterixa eta Larrañeta esate baterako, Eibarko ipar-mendebaldeko muturreko azken basarrixak dira. Kaso berezi bat be badago Agiñagan, Oregizar basarrixa. Agiñaga auzua pasatu eta hurrengo basarrixa da eta erdixa Gipuzkoan dago eta beste erdixa, ostera, Bizkaian. Sukaldian egitteko orduan Eibarren jarduten dabe; kortan biharrian dabizenian, ostera, Bizkaian.

Errotak eta ermittak be ez dira falta baillaran. Eibarren hain ezaguna dan San Migel elixia Agiñaga auzuan erdi-erdixan dago. San Roman ermittara be (izen bereko basarrixan gaiñekaldian) gutako asko juanda egongo da honezkero. Ezin ahaztu San Ildonso humilladerua, San Roman basarrixan aspikaldian gelditzen dana.

Errotak ez dabe ermitten moduko zorterik izan. Errota bi egon dira auzo honetan eta bat bera be ez da geratzen gaur egun. Baillarako erreka nagusixenak ertzian zeren Errotatxo edo Agiñaga-Errota, eta Zubitza edo Zubierrota bidia egitteko bota egiñ zittuen. Gaur egun bide ertzian aztarnatxo batzuk besterik ez dira gelditzen.

Eibar, mendi arteko zuluan dago eta Agiñaga Ballia be holakua da. Mendixetatik datozen errekatxuak baillarako zulotik pasatzen dan erreka haundixenakin, Urko errekiakin, egitten dabe bat. Erreka hori izango da seguru asko Agiñagako istorixo eta ipuiñak onduen jakingo dittuana, ez da-eta Agiñagan ipoiñ eta pertsonaje ezagunik falta. Hortxe dakagu bestela, Juan Gisasola, "Sakristaukua", Eibarren oso ezaguna izandako palankarixa. San Migel elixako Sakristau etxekua zan berori eta palankia euskal erara botatzen zeguanik eta onena. Palankia botatzeko teknika hori beranduago be erabili zeban beste eibartar batek, Felix Errauzkinek, Melbourneko Olinpiadetan. Baiña ez zan Luis Gisasola Sakristau etxeko Gisasolatar ezagun bakarra izan. Familixa berekuak, Ameriketara juan eta bertan egindako diru mordua bialdu zeben Agiñagara, Sakristauko etxian eskolia egin zeixen. Hara juan izan ziran makiña bat urtetan baillarako neska-mutil gazte bihurrixak gauza barririk ikastera. Españolez be ikasten ei zeben bertan, "atia-puerta" edota "baltza-negro" zala; halaxen kontatu zeskuan auzokide batek.

## ABUAGA AZPIKOA / Abua Azpikua, Auba



**Distantzia:** 8 kilometro

**Altueria:** 410 metro

### FITXA TEKNIKIA

Zer daken

Jose Arizmendiarieta Larrañaga (65), Rufina Arrieta Suinaga (61), Juan Arizmendiarieta Larrañaga (68) eta Jabier Arizmendiarieta Arrieta (38).

Datu  
aittagarrixak

**ANIMALIXAK:** Behiak (pirenaikak), txahalak eta izkuak (danera 20 buru) eta oilluak (30).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak eta sagarrak (etxerako).

- \*Abuaga basarrixen gaiñian idatzirik zaharrena 1812kua da. Urte horretan hiru basarri zeguazen. Baten, Rafael izeneko gizon bat bizi zan, beste baten Iriondotarrak eta, hirugarrena, Miguel de Gisasolana zan.

## ABUAGA ETXEBARRI

<b>FIGXA TEKNIKIA</b>	Egoeria	Jausitta.
	Datu aittagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- (Begiratu Abuaga Azpikua)*.</li> <li>- 1812ko basarri zerrendan, Agiñagan Abuaga izeneko hiru basarri zeguazela agertzen da. Hiruretako bat Abuaga Etxebarri zan eta Miguel de Gisasolana zan sasoi haretan.</li> <li>- Torrekua izenakin be ezagutu izan da. Gizaldi hasieran martxan zeguan oindiokan baiña aspaldixan txabola moduan erabiltzen da bakarrik. Abuaga basarrixan azpikaldian dago, piñuz inguratuta eta Agiña Gaiñekua basarrikuena da.</li> </ul>

## ABUAGA GAINEKOA / Abua Gaiñekua, Auba



**Distantzia:** 8 kilometro

**Altueria:** 410 metro

<b>FIGXA TEKNIKIA</b>	Zer daken	Jose Maria Gisasola Areitio (68) eta Maria Elgezua Loiola (66).
	Datu aittagarrixak	<p><b>ANIMALIXAK:</b> Behiak (17), ardixak (10) eta oilluak(16).  <b>ORTUA:</b> Sasoko barazkixak (etxerako).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- (Begiratu Abua Azpikua)*.</li> <li>- Abua G a i ñ e k u a 1929ko otsaileko domeka baten erre egiñ zan. Iñork ez daki sua zelan hasi zan. Urte berian egiñ zan oiñ daguan etxia.</li> <li>- Basarrixa Gisasolatarrena izan da azken gizaldixotan.</li> </ul>

## AGINAGAKO AGIRRE / Agiña Agarre



**Distantzia:** 9 kilometro

**Altueria:** 250 metro

### FITXA TEKNIKUA

<b>Egoeria</b>	Txabolia.
<b>Datu aittagarrixak</b>	- Badakigu basarri hau 1857xan oindiokan martxan zeguala, baiña gizaldi honen hasieratik hutsik egon da. - A izpeko Jose Mugerza da jabia eta gaur egun txabola moduan erabiltzen da.

## AGINAGA AZPIKOA / Agiña Azpikua



**Distantzia:** 9,5 kilometro

**Altueria:** 290 metro

### FITXA TEKNIKUA

<b>Egoeria</b>	Jausitta.
<b>Datu aittagarrixak</b>	- *Agiña izeneko basarriren lehelengo aittamena, 1602kua da, baiña urte horretan izen hori zekan basarri bakarra azaltzen da Agiñaga Baillian eta ezin da jakin Agiña Gañekua edo Agiña Azpikua zan. Handik urte batzuetara, 1643. urteko agirixetan, Agiñagan Juan eta Francisco de Aginaga bizi zirala agertzen danez, ordurako etxe bi zeguazela pentsatu geinke. Hori garbi gelditzen da 1747ko agirixetan. Urte horretan Lucas de Aginaga bizi zan etxe baten eta Francisco de Aginaga bestian.

## AGINAGA GAINEKOA / Agiña Gaiñekua



**Distantzia:** 9,5 kilometro

**Altueria:** 290 metro

Zer daken

Etxebizitza bi dittu:

- 1 - Jose Luis Gisasola Larrañaga (68).
- 2 - Pedro Gisasola Gisasola (34), Idoia Villoslada Lanas (31), Selene Gisasola Villoslada (2) eta Julen Gisasola Villoslada (1).

Datu  
aittagarrixak

**ANIMALIXAK:** Behiak (10, larrerakuak), txahalak (10), ardixak (18), oilluak (12), astua eta bihorra. Eusko labela dake.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

**LURRAK:** 18 hektarea.

- (Begiratu Agiña Azpikua)\*.
- 1788xan Miguel Gisasola Garagarza zan Agiña Gaiñekuan jabia.
- Basarriko semia zan be bai, XVI. gizaldixan Medellín (Kolonbia) sortu eta Antioquíako gobernadore izan zan Miguel de Aginaga.
- 1976. urtian, erre egiñ zan eta harrezkero guztiz barriztuta dago.
- Luis Gisasola, Jose Luis Gisasolan aittitta, palankari ezaguna izan zan.

## ALBIZURI

<b>FITXA TEKNIKUA</b>	Egoeria	Jausitta.
	Distantzia	6,5 kilometro.
	Altueria	490 metro.
	Datu aittagarriak	<p>- Albizuri izena 1498xan aittatzen da lehelengoz leku-izen eta abizen moduan (Pedro de Albizuri). 1597xan, Antonio de Albizuri Eibarko alkate izan zan. Basarrikan aittamenik zaharrena, ostera, 1812kua da. Urte horretan, Juan Bautista de Albizuri, orduko jabiak, 22 anega gari, 26 anega arto eta karga bat gaztaiña jaso zittuan. Nahiko kantidade haundixa zan orduko sasoirako eta, emoten dabenez, garrantzi haundiko basarrixa zan.</p> <p>- 1925. urtian oindiokan martxan zeguan eta Bautista Osoro zan jabia. Hurrengo urtietan, barriz, indarra galtzen jua zan, hustu, eta oiñ 20 urte inguru jausi egiñ zan. Gaur egun harri batzuk besterik ez dira gelditzen.</p>

## ALBIZURI ABELETXE

<b>FITXA TEKNIKUA</b>	Egoeria	Desagertuta.
	Datu aittagarriak	<p>- 1857ko agirixetan AlbizuriAbeletxe izeneko basarrixa aittatzen da, baiña ez dogu eskuratu basarri horri buruzko beste argibiderik. Eibar-ko abeletxe askokin pasatu zan legez, seguru asko, jatorriz, izen bereko basarrikan txabola edo abeletxia izango zan eta jua zan gizaldikan, errenteruak sartu, haunditu eta basarri bihurtuko zeben. Errenteruak alde egitterakuan, basarrixa hustu eta jausi egingo zan.</p>

## AMURUTEGI / Amutei

<b>FITXA TEKNIKUA</b>	Egoeria	Txabolia.
	Distantzia	9,5 kilometro.
	Altueria	240 metro.
	Datu aittagarriak	<p>- 1747ko agirixetan agertzen da lehelengoz basarri hau. Urte horretan Martin de Gisasola Amurutegi bizi zan bertan.</p> <p>- Mende honetan zihar Agiñagako Sakristaukuena izan da eta oiñ Agiña Gañekuena da. Tente dago baiña aspaldittik txabola moduan erabiltzen dabe.</p>

## ARANDO AURTENA / Arando Aurten



**Distantzia:** 12 kilometro

**Altueria:** 460 metro

**Zer daken  
Datu  
aittagarrixak**

Jose Larrañaga (72) da jabia.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako)

- \*Lope de Isastik 1625ian idatzitako lanian, Arando basarrixa aittatzen dau Eibarren sasoi haretan zeren oiñetxien artian. Ordurako, gaur egungo bost basarrietako bat gitxienez jasota zeguan, baiña ez dakigu zein (edo zeintzuk). Dana dala, 61 urte lehenago, 1564an, Martin Donegarai Arandok, hidalgixa eskaeria egiñ zeban eta ordurako, seguru asko, Aranduak tente zeguazelakuan gare.

- \*Garrantzi haundiko basarriak zirala dirudi, XVI eta XVII. gizaldixetan Arando izeneko izkribau eta alkate asko egon zalako Eibarren.

- Arando Aurtena izena ("Arando Aurtena") 1767xan agertzen jaku lehelengoz eta 1778xan Juan de Mendieta da bertako jabia.

- Aranduak dira, Eibarren, antxiña basarriak bereizteko erabiltzen ziran izenak gorde dittuen bakarrak. Gaur egun Gokoa, Erdkoa eta Behekoa erabiltzen diran arren, Arando basarrietan euskerazko forma arkaikuek gorde dira: Guena, Aurtena eta Barrena.



## ARANDO BARRENA



**Distantzia:** 12 kilometro

**Altueria:** 456 metro

### ETXEA TEKNIKIA

**Zer daken**

Juanita Larrañaga Ugarteburu (48).

**Datu  
aittagarrixak**

**ORTUA:** Babak, artua, sagarrak eta intxaurrak (etxerako).

**LURRAK:** 12 hektarea.

- (Begiratu Arando Aurtena)\*.
- Arando Barrena izenakin ez jaku 1857ra arte agertzen.
- Gizaldi honetan zihar Larrañagatarrena izan da. Hasieran erreteruak ziran eta oiñ dala 36 urte Faustino Larrañagak erosi egiñ zeban.
- Egitura aldetik ikusgarri da eta bertakua moduko ate eta arkuak Eibarko basarri gitxitan agertzen dira.
- Aurten barriztu da azkenengoz. Oiñ dala 17 bat urte jaitsi ziran herrira.

## ARANDO ETXEBARRI



**Distantzia:** 12 kilometro

**Altueria:** 460 metro

**Zer daken**

Oiñ arte bertan bizi izan diranak: Bitoria Onaindia Aranburu (80), Jose Mari Ugarteberu Onaindia (47), Joakin Ugarteberu Onaindia (46), Felipe Ugarteberu Onaindia (44) eta Maite Ugarteberu Onaindia (40). Kalian bizi dira baiña sarritan igotzen dira.

**Datu aittagarrixak**

**ANIMALIXAK:** Untxiak (2).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

**LURRAK:** 16 hektarea

- (Begiratu Arando Aurten)\*.

- Izenak diñuan moduan, Aranduen artian barrixenatarikua berau izango da eta 1857ra arte ez da izen horrekin agertzen.

- Azkenengo barrikuntza eta konponketak 1996xan egiñ jakoz.

## ARANDO GOENAGA / Arando Guena



**Distantzia:** 12 kilometro

**Altueria:** 465 metro

### FITXA TEKNIKUA

**Zer daken**

Guenagatarrak betidanik bizi izan dira bertan eta 1966xan erosi egiñ zeben. Gaur egun Frantziska Ordorika Unamunona (88) eta Jose Antonio (61) eta Jose Manuel Guenaga Ordorikana (56) da.

**Datu  
aittagarrixak**

**ORTUA:** Sagarronduak eta intxaurronduak dakez.

**LURRAK:** 20 hektarea.

- (Begiratu Arando Aurten)\*.

- Arando Guena izeneko lehelengo aittamena 1767kua da. Gitxi gora-behera sasoi haretan basarrixa erre egiñ zan.

## ARANDO ITURRALDE / Arando Itturralde



**Distantzia:** 12 kilometro

**Altueria:** 390 metro

**Zer daken**

**Datu  
aittagarrixak**

Domingo Arano Ugarteburu (79) eta Flora Aranberri Laskurain (76).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak eta frutak (etxerako).

- (Begiratu Arando Aurtan)\*.
- Arando Itturralde izena 1778xan agertzen da lehelengoz. Urte horretan Juan de Mendieta zan ugazaba.
- Juan zan gizalditik hona, gitxienez, Aranotarren familia bizi izan da bertan.
- Itturrixa daka basarrixan kontra.

## ARIZPE / Aizpe, Azpe



**Distantzia:** 8,5 kilometro

**Altueria:** 295 metro

### FITXA TEKNIKUA

**Zer daken**

**Datu  
aittagarrixak**

Jose Alberto Mugerza Etxeberria (40), Maria Jesus Latorre Fernández (35), Naia Mugerza Latorre (17) eta Nora Mugerza Latorre (7). Kalian bizi dira baiña sarritan igotzen dira bertara.

**ORTUA:** Sasoiko barazkiak eta frutak (etxerako).

- Basarri honi buruz lortu ahal izan dogun lehelengo aittamena 1747kua da eta urte horretan Juan de Arriaga Arizpe bizi zan basarrixan. Dana dala, badakigu, urte batzuk lehenago, 1636xan, Ageda Arizpe-atxa San Romaneko seroria zala eta 1643an, Agiñagako basarrixetako baten Martin de Arizpe-atxa bizi zala.

## ATXA



**Distantzia:** 8,5 kilometro

**Altueria:** 300 metro

<b>FITXA TEKNIKUA</b>	<b>Zer daken</b>	<p>Jose Antonio Elgezua Loiola (62), Joakin Zinkunegi Ibarbia (59), Katalina Elgezua Loiola (60), Jesus Mari Zinkunegi Elgezua (25) eta Mikel Zinkunegi Elgezua (22).</p> <p><b>ANIMALIXAK:</b> Behiak (9), txahalak (7), astuak (3), oilluak (12) eta ahuntza.</p> <p><b>ORTUA:</b> Sasoiko barazki eta frutak (etxerako).</p> <p><b>LURRAK:</b> 19 hektarea</p>
	<b>Datu aittagarrixak</b>	<p>- 1747xan Martin eta Alfonso Atxa bizi ziran Atxa basarrixan. Horixe da basarri honen gaiñian dakagun lehelengo aittamena. Dana dala, Atxa abizena betidanik izan da abizen ezagun eta ugarixa Eibarren. Lehelengoz 1557xan agertzen jaku, Juan Lopez de Acha, eta 1615ian, Francisca de Acha San Roman ermittako seroria zan.</p>

## ATXA ABELETXE / Atxa Abeletxe

### FITXA TEKNIKUA

<b>Egoeria</b>	Desagertuta.
<b>Datu aittagarrixak</b>	<p>- 1857. urteko agirixetan, Atxa basarrixaz gaiñera, Atxekua Abeletxe edo Atxa Txiki izeneko basarri bat be agertzen da. Seguru asko, Eibarko abeletxe gehixenekin pasatu zan legez, jatorriz Atxa basarrikuen abeletxia izango zan eta jua zan gizaldixan errenteruak sartu, haunditu eta basarri bihurtuko zeben. 1887rako hutsik zeguan. Ez dakigu basarri horrekin zer pasatu zan, baiña gaur egun ez da beran arrastorik gelditzen.</p>

## BEKOETXEA

## FITXA TEKNIKUA

Egoeria	Desagertuta.
Datu aittagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Basarri honen barri Agiñagako zaharrenak besterik ez dake. Zubiaga errotian aldamenian ei zeguan eta jua zan gizaldixan jausi ei zan. Gizaldi hasieran oindiokan harri batzuk geratzen ziran, baiña gaur egun ez dago haren arrastorik.</li> <li>- 1812xan Jose de Atxa Bekoetxe zan basarrixan jabia.</li> </ul>

## GOROSTIAGA / Gorostixa



**Distantzia:** 8,5 kilometro

**Altueria:** 350 metro

## FITXA TEKNIKUA

Zer daken	<p>Maria Mandiola Maguregi (71), Ignazio Manzidor Urkiri (48), Mariasun Arizmendiarieta Mandiola (34), Iñaki Manzidor Arizmendiarieta (11) eta Asier Manzidor Arizmendiarieta (7).</p> <p><b>ANIMALIXAK:</b> Behiak (12), txahalak (6), ardixak (7), astuak (2), bilixak (9) eta oilluak. Eusko Labela dake.</p> <p><b>ORTUA:</b> Sasoiko barazki eta frutak (etxerako).</p> <p><b>LURRAK:</b> 24 hektarea.</p>
Datu aittagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Abizena lehenagotik ezagutzen zan arren, basarrixan lehelengo aittamena 1747kua da. Urte horretan Bartolome de Arrieta Gorostiaga bizi zan bertan.</li> <li>- Azken gizaldiotan Arizmendiarietatarrak bizi izan dira. Hasieran errenteruak ziran eta oiñ dala 55 urte inguru basarrixa erosi zeben.</li> </ul>

## ITERIAGA / Itterixa



**Distantzia:** 8 kilometro

**Altueria:** 455 metro.

**Zer daken**

Benigno Elkoro Urkidi (84), Rufina Aldazabal (75), Jabier Elkoro Aldazabal (43) eta Jesus Maria Elkoro Aldazabal (46).

**Datu aittagarrixak**

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako). Sagarrak, pikuak, gindak eta madarixak.

- *Iterixa* basarrixari buruzko lehelengo datua 1812ko erroldan topatu dogu. Urte horretan Andres de Mandiola zan *Iterixa* basarrixan jabia.  
- Gaur egungo *Iterixa* basarrixan nahiko barrixa da. Aurretik aldamenian zeguan basarrixan bizi ziran, *Iterixa Zaharrian*. Erre zanian basarri barrixa jaso zeben eta zaharra txabola moduan laga. Zaharra be oindiokan tente dago.



## LARRAÑETA



Distantzia: 7,5 kilometro

Altueria: 410 metro

### FIGXA TEKNIKUA

Zer daken

Datu  
aittagarrixak

Juliana Mandiola Maguregi (73), Pedro Balentin Azpiri Mandiola (49) eta Pedro Garabieta Izagirre(63).

**ANIMALIXAK:** Behiak (17) eta oilluak (12).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

- 1810eko apirillan 7xan, Agustina Pagaegik 23.060 errialen truke erosi zeban. Beraz, basarrixa lehenagokua da.

- 1986 inguruan, oiñaztu batek aurreko ormia apurtu zetsan basarri-xari.

## MENDIBIL



**Distantzia:** 7 kilometro

**Altueria:** 465 metro

**Zer daken**

**Datu  
aittagarrixak**

Maria Josefa Atxa-Albizuri Ordorika (94), Jose Manuel Azpiri Atxa-Albizuri (64), Ageda Aranzegi Arregi (56) eta Luis Mari Azpiri Aranzegi (33).

**ORTUA:** Sasoiko barazki eta frutak (etxerako).

- Basarri honetaz lortu ahal izan dogun aittamenik zaharrena, 1857kua da.
- Atxatarrak bizi izan dira azken gizaldixotan basarrixan. Manuel Atxak, Maria Josefan aittak, oiñ dala 65 urte inguru erosi zeban.

## ORBESORAEN / Orbesoren, Agiña Orbekua



O rbesoren gizaldi hasieran

**Distantzia:** 8,5 kilometro

**Altueria:** 280 metro

### ETXEA TEKNIKUA

**Zer daken**

Florentina Alberdi Azpiri (74), Maria Teresa Leturiondo Alberdi (52), Jabier Olasolo Agote (56), Roberto Olasolo Leturiondo (28) eta Aitor Olasolo Leturiondo (24).

**ANIMALIXAK:** Behiak (4, larrerakuak), zaldixak (1), ardixak (14), txahalak (4), oilluak (8).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako). Sagarrak eta madarixak.

**LURRAK:** 20 hektarea.

**Datu aittagarriak**

- Basarrixan lehelengo aittamena 1676kua da. Handik urte batzuetara Andres de Orbea Soraen bizi zan bertan, 1747xan.

- Bertakuak esandako modura, Eibarko basarririk zaharrenetakua ei da. Gizaldi hasierara arte, egurrezko fatxadia zekan. Oiñ dala 35 urte barriztu zeben.

- Agiñagako Errotatxo errotian jabiak dira O rbesoraenekuak. Errota hori oiñ 40 urte inguru itxi zan eta urte batzuk beranduago bota egiñ zeben.

## OREGI ZAHAR / Oreizar



**Distantzia:** 10 kilometro

**Altueria:** 325 metro

**Zer daken**

Jesusa Aranzeta Gisasola (59), Juan Jose Agirregomezkorta Eizagirre (65) eta Luis Mari Agirregomezkorta Aranzeta (31).

**ANIMALIXAK:** Behiak (6, larrerakuak), ardixak (23), zaldixak (3), oilluak (12), untxiak (2).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (astian behiñ jaisten dira plazara).

**Datu aittagarrixak**

- Basarrixan lehelengo aittamena 1498kua da. Eibarko basarrixen artian zaharrenetakua da.

- 1643. urtian Domingo de Oregibizi zan Agiñagako basarri baten.

- 1747xan Juan de Oregi bizi zan basarrixan.

- Basarrixan erdixa Gipuzkoa da eta beste erdixa Bizkaia: sukalde aldia Gipuzkoa eta kortia Bizkaia.

- San Migel santuan erretaula txiki bat dake basarrixan bertan.

## SAN ROMAN



**Distantzia:** 7,5 kilometro

**Altueria:** 475 metro

### FITXA TEKNIKUA

**Zer daken**

Jose Mari Loiola Gisasola (54), Maria Dolores Arrillaga Arrillaga (51), Roberto Loiola Arrillaga (34), Felix Loiola Gisasola (46), Sabino Loiola Gisasola (43) eta Pako Loiola Gisasola (33).

**Datu aittagarriak**

**ANIMALIXAK:** Behiak (6, larrerakuak), txahalak (9), zaldixak (20) eta oilluak (12).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako). Frutak.

- Basarri honen gaiñian aittamenik zaharrena 1747ko idatzixen bitartez jakin dogu. Agirixak diñuenez, sasoi haretan, gela eta kortiaz gaiñera, basarriak komuna eta labia zekazen eta Ignacio de Iriondo bizi zan bertan.

- 1810eko martxuan 16xan, Maria Agustina de Pagaegik 15.600 errialetan erosi zeban basarrixa.

- Lehelengo aittamena 1747kua bada be, ermittia XVII. gizaldi hasierarako eginda zeguala badakigu eta San Roman basarrixa, jatorriz serora-etxia izan zanez, ermittian sasoi beretsukua izan leike.

## SUINAGA / Suiña



**Distantzia:** 8 kilometro

**Altueria:** 205 metro

**Zer daken**

Jesusa Arrieta Suinaga (55), Jose Maria Sololuze Pagaegi (58) eta Jose Maria Sololuze Arrieta (20).

**ANIMALIXAK:** Behiak (5, larrerakuak), txahalak (5), ardixak (17). Eusko Labela dake.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

**LURRAK:** 17 hektarea.

**Datu aittagarriak**

- Basarriak sarrerako arkuan erliebe bat daka. Kopa itxurako irudixa da, eta bertan, idatzitta, etxia 1791. urtekua dala azaltzen da.

Fetxa hori basarrixa barriztu zanekua izango da, 1747kua da-ta basarriaren gaiñian eskuratu ahal izan dogun aittamenik zaharrena. Urte horretan Juan eta Migel de Suinaga bizi ziran basarrihan.

- Suinaga abizena lehenagotik be ezaguna zan herrixan eta 1690ian, Juan de Suinaga izeneko gizon bat bizi zan Eibarren.

- Bertakuak kontatzen dabenez, Agiñagako abadia zana, Suiñako semia zan eta jabia be bera zan.

- Beti Suinatarrak bizi izan dira bertan baiña 1958. urtera arte erreterero moduan egon ziran, eta Juan Arrieta Gurrutxagak eta Teresa Suinaga Agirrek orduan erosi zeben.

- 1994xan, basarrihan gaiñekaldian, Suiñatxo izeneko txaleta egiñ zeben. Suinagako semia dan Juan Jose Sololuze Arrieta (31) eta Maria Pilar Aizpurua Aizpurua (31) bizi dira bertan.



## SUINATXO / Suiñatxo

## ZUMARAN



**Distantzia:** 7 kilometro

**Altueria:** 425 metro

### FITXA TEKNIKIA

**Zer daken**

Eusebia Gisasola Aldazabal (75).

**Datu aitagarririk**

**ANIMALIXAK:** Behiak (8) eta txahalak (1).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

**LURRAK:** 11 hektarea

- 1498xan aittatzen da lehelengoz Zumaran izeneko basarri bat Eibarren, baiña ez dakigu gaur egungo berbera dan ala ez.

- 1747xan Andres eta Joseph de Uberuaga Zumaran bizi ziran bertan.

- Zumaran abizena oso ezaguna izan zan Eibarren XV. eta XVIII. gizaldixen bittartian. Domingo de Zumaran itsasontzi kapitana izan zan XV. gizaldixan, Sebastian de Zumaran, alkatia 1638xan eta beste Sebastian de Zumaran bat be, alkate izan zan 1766xan. Horrek egiñ zeban 1952. urtian bota zan Indianokua etxia.

- 1788. urtian, Andres Ubeaga Zumaran zan basarrixan ugazaba eta San Roman ermittako zaindarixa. Baitta Zubiaga errotian jabia be. Beranduago, hau errotiau, Sakristaukuena izan zan. 1643an barriz, Pedro de Zumaran bizi zan Agiñagako basarri baten.

- Basarrixan onduan, Zumaran Barri izeneko etxia jaso dau Zumaraneko seme batek. Jesus Alberdi Gisasola (41), Izaskun Otaegi Labaca (37) eta Ander Alberdi Otaegi (6) bizi dira bertan.



## ZUMARAN BARRI